

BALOREZKO PROPOSAMENA.

Gure proiektuaren eta enpresaren izena EKOPANEL da. Proiektu honen nobedadea eguzki-energiatz baliatuz, gailu-elektronikoak kargatzea da. Horretarako, sortuta dagoen mugikor bati eguzki-plaka bat jarriko diogu, mugikorraren atzeko aldean. Horrela elektrizitate gutxiago erabiliko dugu eta energia berriztagarria erabiliko dugu gailu-elektronikoak kargatzeko. Proiektu honen prestazioak ez dira konplexuak, hau da, gailu-elektroniko bati eguzki-plaka bat jartzea ez litzateke konplexua izango. Hasiera batean, mugikorrei soilik txertatuko genieke eguzki-plaka. Proiektua bide honetik doala ikusiz gero, bestelako gailu elektronikoekin hasiko ginateke lanean, tablet, portatil edo argazki kamerekin adibidez.

Mugikorraren pertsonalizazioa ez da gure balio nagusia izango oraingoz, beste balio batzuei garrantzi handiagoa ematen diegulako. Baina momenturen batean, proiektua aurrera doan eanean, kontuan hartu genezake.

Proiektu honen helburuetako bat, bezeroei lana erraztea da. Eguzki-plaka bat eduki ezkerok zure mugikorrean, eguzkia dagoen momentu guztietan mugikorra kargatzen egongo litzateke eta ez daukazu mugikorra kargatzearen pendiente egon beharrik. Mugikorrekin batera, hura kargatzeko aukera ematen dizun eguzki-plaka izango du txertatuta. Alde oso positibo on bat dauka produktu honek, bezeroek hainbeste aldiz mugikorra kargatzen jartzen dutenean, mugikorraren bateria hondatzen joaten da eta mugikorrez aldatu behar izaten dute. Produktu honi esker, bateria ez litzateke alderdi horretatik arazorik izango. Gainera, energia berriztagarria erabiliko dugu, ingurunearekin arduratsu portatuz.

Diseinuari garrantzi handia emango diogu, publiko zabalago batera iristeko asmoz. Egon daitezke erosleak funtzionamenduari garrantzia ematen ez diotenak, produktua etikoa den begiratzen ez diotenak edo produktua ekoizteko modua ingurunearekin arduratsua den edo ez begiratzen ez diotenak. Hau da, produktua diseinuagatik bakarrik erosten dutenak. Produktu honen markak edo statusak oraingoz ez dauka garrantzi handirik, hala ere, zeharkako balio bat izan dezake. Prezioa ez litzateke balio potente bat izango, produktuak ondo funtzionatzea garrantzitsuagoa iruditzen zaigu prezioa baino eta produkzioaren zati guztiak ondo eginak egingo direnez ezingo dugu prezioa asko jeitxi. Bezeroek aurrena prezioari begiratzen diote eta erosten dutenean funtzionamentu egokia duen ziurtatzen dute. Horren ondorioz, gure produktuarentzat prezioa ez litzateke balio potenteeneko bat izango oraingoz.

Gure kasuan, arriskua murriztea oso balio garrantzitsua da. Denentzako egongo litzateke produktu hau eskuragarri, baina norberaren situazio ekonomikoak baldintzatu dezake. Produktu hau leku eguzkitxuetan erabiltzea izango litzateke egokiena. Afrika bezelako lurralde baterako irtenbide ona izango litzateke horrelako produktu bat izatea, honek gailu elektronikoak erabiltzeko erraztasuna emango liekete eta ez elektrizitateen azpiegiturak ez lirateke beharrezkoak izango, eguzki-plakarekin ez direlako behar. Modu horretara, azpiegitura egokiak ez dauden herrialdeetarako aukera ezin hobea izango litzateke modu honetako produktu bat eskuragarri izatea.

